

GAZTE KANTTUA

Ez dakit nork bere gaztaroari amaiera ikusten ote dion inoiz, baina 30ak hurbildu ahala, ezin ukatu inguruko paisaia aldatu zaigunik. Nire adinkideen artean gero eta nabarmenagoa da susmoa: zerbait aldatzera doa, nahiz eta gu berdin-berdin sentitu. Ez naiz ariketa nostalgiko autokonplazienteen zalea, baina uste dut gure paisaia aldatu aurretik utzi beharko genukeela lekukotza bat, eta hona hemen nirea.

Ez dut uste Hondarribia herri bereziki gaztezalea izan denik gure belaunaldiarentzat (agian gure aurretik izango zen, ezin esan). Izan ditugu gure txokoak, bai, Gaztelekua gaztetxotan (nola ahaztu gure hezitzaile izan zirenak) eta, gero, Gazte Xaia, Gazte Asanbladak berpiztu zituen Olinpiadak, zapatak zikin-zikin uzten zizkiguten Alamedako Gazte Egunak, Alde Zaharreko gaztetxe-aro laburra... Herri eder eta lasai honetan jaio eta bertan gazte izan garenontzat ez da erraza izan leku propioak eraiki eta mantentzea, kanpora begira bizi (izan) den herri turistifikatu eta moñoñoari ez baitzaio gustatzen gaztaroak dakarrena: zarata, saltsa eta kaos pixka bat; okupazioa eta aldarrikapen politikoak.

Gainera, ezin dugu ahaztu Alardearen auziak gure belaunaldian izan duen eragina. Gure belaunaldikoak izan ziren plastiko beltzak lehenengoz hartu zituzten 15-16 urteko neskek, bai eta desfilatzera atera ziren lehenengo nerabe kuadrilek ere. Gatazka lehertu zeneko oroitzapenik apenas izan ez, eta, hala ere, leherketa horren zama eta oinordetza jaso dugu. Horrek ere zaildu egin du gure arteko kohesioa askotan, nahiz eta, adinarekin, posizio batzuk gero eta gertuago egon.

Hondarribia ez da herri erraza gazte izateko. Ederra da, bai, baina ez du bertan geratzeko erraztasunik eskaintzen: alokairuak garestiegiak dira gehienetan, eta ez dago parrandarako tabernarik apenas. Udan, elkarren bila ibiltzen gara San Pedro kaleko tabernetan, eta elkarri begiradarekin esaten diogu "Bai, oraindik hemen gaude, ezagutzen ez dugun jende honen erdian, oraindik hemen gaude".

Ez dut nik iragarriko nire gaztaroaren amaiera, baina uste dut beste batzuek hartu behar dutela hitza hemendik aurrera. Kanttu bat baino zerbait gehiago behar du Hondarribiko gazteriak: espazio publikoa, parrandarako lekuak, alokairu publiko eta merkeak, turistaz horren josita ez dauden kaleak, VT gutxiago, gaztetxe bat, guno seguru eta feministak. Herria egiteko gogoia ematen duen herri bat.

Kanttu batekin hastea ez da gutxi, ea kanttu horretan hitza hartu eta beren aldarri propioak plazaratuko duten gazteak datozen gure atzetik lehenbailehen, ze gure belaunaldia aspiradorei buruz hizketan hasi da nahi gabe, eta aspiradorak ez dira inoiz gaztetetasunaren seinale izan.

Ane Zubeldia, Mejillon Tigre Kolektiboa